BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/12/17

# Bizkaibusek 3339 lineako jazoerak konponduko ditu eta udako denporaldian eskiniko dau zerbitzua

Bizkaiko Batzar Nagusietako Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordeak Podemos taldeak aurkeztu dauen arauz besteko proposamen bat aho batez onetsi dau gaur goizean. Proposamen horren bitartez, Bizkaibusen Gurutzeta/Barakaldo/Areeta 3339 linearen zerbitzua udan eskiniko da. Ekimenak zehazten dauen moduan, lineak bagilaren 1etik irailaren 30era eskiniko dau zerbitzua.

Onetsi dan proposamenaren bitartez, Batzar Nagusiek, uda honetan pilotu proban martxan jarri dan 3339 linean hautemandako akats posibleak konpontzeko eskatu deutsie Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesino Sailari.

Modu berean, Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordeak EH Bildu taldeak aurkeztu dauen arauz besteko beste proposamen bat be aho batez onetsi dau. Orain hilebete batzuk Durangoko Udalbatzak onetsi eban ekimenak, A3913 Durango-Arrazola linea Durangoko Aramotz auzora luzatzeko eta San Fausto auzoan dagon Faustekalen Bizkaibuseko A3915 linearen geraleku bat jarteko aukerak aztertzea bultzatzen dau.

GALDAKAOKO ANEZKA BOLUETAKO GERALEKUAN

Miguel Ángel Gómez Viar Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Foru Diputatuak batzordean iragarri dauenez, Aldundiak Boluetan dagon Galdakaoko autobus anezkaren geralekua trenbidearen beste aldera eroatea aurreikusten dau. Horretarako, beharrezkoa izango da Bilboko Udalak “obra txiki bat” egitea, hau da, “autobusa sartuko dan dartsena handitzea eta espaloia txikitzea”. Horrez gain, Gómez Viarrek adierazo dau Bilboko Udalaren konpromisoa daukiela, “2019ko lehen hiruhilekoaren inguruan”, geraleku horretan markesina eredu barria prest egon daiten.

Gómez Viarren agerraldiak EH Bildu taldeak aurkeztu dauen eskari bati erantzuten deutso. Bertan, zerbitzuaren inguruan dagozan hiru kexa azpimarratzen ziran: autobusean bidaiari larregi joatea; geralekua leku desegokian egotea, emakumeentzat batez be; eta euritik babestuko dauen markesinarik ez egotea.

Bidaiari larregi egoteari jagokonez –kritika horregaz bat egin dabe, baita, Talde Popularrak eta Podemosek– Foru Diputatuak esan dau, aurton, lineak 36.900 bidaia jaso dituala, eta 4 kexa baino ez dirala erregistrau.

GIZARTE TXARTEL BONIFIKATUA

Bukatzeko, batzordeak ez dau onetsi azkenengo arauz besteko proposamena. Bertan, Talde Popularrak Bizkaibusen barruan “Gizarte Txartel Bonifikatuaren” soslaia martxan jartea eskatzen eutsan Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako

Batzordeari. Jesús Isasi batzordekide popularraren berbetan, neurri hori indarrean jarri ezkero, EMB enpresak datu zehatzak eukiko leukez, tarifen integrazinorako.

Proposamenak Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek aurkeztutako zuzenketa-eskea jaso dau. Bertan, Tarifei buruzko Batzordeari eskaria egiten jakon "Lurralde Historikoko garraio operadoreen arteko tarifen integrazinoa lortzeko, garraio publikoaren erabilerea eta intermodaltasuna sustatuz eta, modu berean, garraioak, bere tarifa politiken bitartez, beteten dauen gizarteratzea be kontuan hartuta".

Unai Lerma batzordekide jeltzalearen eretxiz, ekimena "ez da oso egokia", gai hori Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzaren eta Tarifei buruzko Batzordearen barruan aztertu behar dalako, eta ez Batzar Nagusietan. Modu berean, Ekain Rico bozeroale sozialistak esan dau, "operadore bakarrari jagokozan bakarkako jarduketei ekiteak, etorkizunerako dagon tarifen integrazinorako aukerea urrundu egiten dauela".

Beste talde batzuk jatorrizko ekimenaren alde agertu dira. Holan, Podemos taldeko Nuria Atienza batzordekideak, "mobikortasuna eskubidea dala eta ezin dala diru-sarrerak eukitearen edo ez eukitearen mende egon" adierazo dau. EH Bilduk be aldeko botoa emon deutso. Zigor Isuskiza batzordekideak esan dau "Bizkaibusen ezarriko balitz, Aldundiak ez leukela ezelango arazorik izango gai bera Garraio Partzuergora eroateko, ganerako operadoreek be holango txartelak ezarri daiezan".

Zuzenketa-eskea ez danez onetsi, Foru Gobernua eusten daben taldeek arauz besteko proposamenaren kontrako botoa emon dabe; Talde Popularrak, EH Bilduk eta Podemosek alde bozkatu dabe; eta Talde Mistoa abstenidu egin da.

NOTA DE PRENSA

17/12/18

# Bizkaibus solventará las incidencias de la línea 3339 e incorporará su servicio a la temporada de verano

La Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana por unanimidad una proposición no de norma presentada por el grupo Podemos, por la cual se incorpora definitivamente la línea de Bizkaibus 3339 Gurutzeta/Barakaldo/La Arena a la época estival. Tal y como apunta la iniciativa, la línea prestará servicio desde el 1 de junio hasta el 30 de septiembre.

A través de la propuesta aprobada, las Juntas Generales también han instado al Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio a solventar las posibles incidencias en la Línea A3339 detectadas en la prueba piloto puesta en marcha este verano.

De igual manera, la Comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio ha aprobado unánimemente una segunda proposición no de norma presentada por el grupo EH Bildu. La iniciativa, que fue aprobada hace unos meses por el pleno del Ayuntamiento de Durango, impulsa el estudio sobre la extensión de la línea A3913 de Bizkaibus Durango-Arrazola al barrio Aramotz de Durango, y sobre el establecimiento de una parada de la línea A3915 de Bizkaibus en la calle Faustekale, a la altura del barrio San Fausto.

LANZADERA DE GALDAKAO EN LA PARADA DE BOLUETA

El Diputado Foral Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Miguel Ángel Gómez Viar, ha anunciado en comisión que la Diputación tiene previsto trasladar la ubicación de la parada que tiene en Bolueta la lanzadera de autobús de Galdakao al otro lado de las vías. Esta acción requerirá que el Ayuntamiento de Bilbao acometa una “pequeña obra” que consiste en “ampliar la dársena donde el autobús se va a meter y reducir la acera”. Asimismo, Gómez Viar ha manifestado que cuentan con el compromiso del Consistorio bilbaíno para que, “alrededor del primer trimestre de 2019”, esté disponible el nuevo modelo de marquesina en esta parada.

La comparecencia de Gómez Viar responde a una petición presentada por el grupo EH Bildu en la que se incidía en tres quejas en torno al servicio: la saturación de pasajeros y pasajeras en el autobús; la mala ubicación de la parada, especialmente para las mujeres; y la falta de una marquesina que resguarde de la lluvia.

En lo que a la saturación respecta – una crítica a la que también se han sumado los grupos Popular y Podemos -, el Diputado Foral ha detallado que, este año la línea ha contado con 36.900 expediciones registrando únicamente 4 quejas.

BILLETE SOCIAL BONIFICADO

Finalmente, la comisión ha rechazado una última proposición no de norma. En ésta el Grupo Popular instaba al Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio a poner en marcha el perfil de "Billete Social Bonificado" dentro de Bizkaibus. Una medida que, según el apoderado popular Jesús Isasi, permitiría a la empresa EMB contar con datos concretos de cara a la integración tarifaria.

La propuesta contaba con una enmienda presentada por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos en la que se instaba a la Comisión Tarifaria a “seguir trabajando en la consecución de la integración tarifaria de los diferentes operadores de transporte del TTHH, fomentando el uso del transporte público y la inter modalidad del mismo, atendiendo de igual forma, a la función de integración social que tiene el transporte por medio de sus políticas tarifarias".

Para el apoderado nacionalista Unai Lerma la iniciativa es “poco adecuada” al entender que este asunto debe ser estudiado en el ámbito de Autoridad de la Movilidad de Bizkaia y de la Comisión Tarifaria, y no en las Juntas Generales. En la misma línea el portavoz socialista, Ekain Rico ha manifestado que “abordar actuaciones individualizadas por un solo operador realmente aleja esa posibilidad posterior de integración tarifaria”.

A favor de la iniciativa original se han mostrado el grupo Podemos, quién a través de su apoderada Nuria Atienza ha defendido que “la movilidad es un derecho y no puede estar condicionado a tener o no ingresos”. También ha votado favorablemente EH Bildu. Su apoderado Zigor Isuskiza ha manifestado que, “si se implantase en Bizkaibus, la Diputación no debería tener ningún problema en trasladar esa misma cuestión al Consorcio de Transportes para que el resto de operadores pudieran implantar este tipo de billetes”.

Al no ser aceptada la enmienda, los grupos que sustentan al Gobierno foral han votado en contra de la proposición no de norma; Grupo Popular, EH Bildu y Podemos han votado a favor; y Grupo Mixto ha optado por la abstención.